

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 94.000 euro eman ditu Hezkuntzak udalek 0-3ko eskoletako lanak egin ditzaten

*Ekainean egindako deialdiaren ondotik, 13 udalerrik jaso dute diru-laguntza Hezkuntza departamentutik*

Asteartea, 2017.eko abenduak 5

Hezkuntza departamentuak 93.754 euro eman die 13 udaltxeri, 0-3 zentroetan hobekuntza lanak egiteko. Ebazpena azaroaren 28an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Ekainean egin zuen Hezkuntza departamentuak diru-laguntza deialdia, sei urtez etenda egon ondoren. Hala, 13 udalerrik jaso dute 0-3 urte bitarteko ikastetxeetan hobekuntza lanak egiteko diru-laguntza.

-Antsoain: 23.262 euro arotzeria lanetarako eta segurtasun leihoak jartzeko (18.374 euro), eta 4.888 euro San Kristobal ikastetxeko gas eta komuneko ur beroaren instalakuntzak berritzeko.

-Altsasu: 5.433 euro Txirinbulo ikastetxe berriko galdara-gela egokitzeko.

-Artaxona: 2.471 euro aire girotua jartzeko "Artaxona" ikastetxeko bi gelatan.

-Cadreita: 3.352 euro baldosa-zoladura jartzeko "Colorines" zentroko patioan.

-Cascante: 27.222 euro azpiegitura termikoak berritzeko "Colorettes" ikastetxean.

-Lizarra: 12.872 euro "Arieta" ikastetxean kautxu-zoladura jartzeko, inguruaren segurtasun neurriak egokitzeko eta patio inguruko egurrezko hesia jartzeko.

-Iza: 2.260 euro zutabeen oinak babesteko eta Zuastiko "Sarburu" zentroaren patioiko segurtasun hesia jartzeko.

-Orkoien: 9.188 euro kautxu-zoladura jartzeko "Ostadar" zentroko patioan.

-Tafalla: 4.031 euro "Tafalla" zentroko patioan: hesidura berria eta kautxu- zoladura.

-Tutera: 2.148 euro "Lourdes" ikastetxeko patiorako segurtasun sarbidea bermatzeko, arrapala berri batekin.

-Villafranca: 3.562 euro "Villafranca" ikastetxeko patioan kautxu baldosa-zoladura eta hesia ordezkatzeko lanetan.